

Balioa

Gure ideiaren balio-proposamena ingurumena zaintzea da. Hiriko biztanleentzat hainbat **onura** ekar ditzake:

- **CO2 isurketa murriztea** eta **airearen kalitatea hobetzea**.
- **Soinu kutsadura murriztea** eta **kotxeak zirkulazioan ibiltzeko denbora** murriztea, denbora aurrezte.
- Zirkulazioan denbora aurrezte gasolina aurrezte eragiten du, **dirua aurreztuz** ere.
- **Donostiko udalarentzat** balio erantsia, **trafiko** gutxiago eta **soinu gutxiago** izango da.



Donostiako trafikoko kutsadura maila, OMSeK ezarritako mugaren azpitik dago. Ala ere, proiektu honekin proposatzen dugun mugikortasun aldaketarekin, maila horiek %30 inguru murriztea aurreikusten dugu.

Bezero mota bakoitzak balio erantsi bat izango du:

- **Bezero arrunta:** Bezero arruntek azkarrago aparkatzea lortzen dute aplikazioa erabiltzean, eta gasolina gutxiago kontsumitzea. Gainera aparkatzen denbora aurrezten dute.
- **Premium bezeroak:** Bezero mota honek bezero arrunta baino aparkalekua erreserbatzeko denbora gehiago izango du, eta erabiltzearen maiztasunaren bidez, denbora hori handitzen joango da. Horrez gain, publizitaterik ez jasotzeko onura izango du.
- **Laguntza berezia behar duen bezeroa:** Bezero hauek deskontuak izateaz gain, ezgaitasunaren bat dutenek aparkaleku espezifiko batzuk izango dituzte, oraindik erraztasun handiagoa edukitzeko aparkatzerako orduan. Zerbitzu honen gatik ez dute ezer ordaindu beharko.
- **Donostiko udala:** Jendeak errazago aparkatuko du, buelta gutxiago ematen trafikoan, hau murrizten, eta soinu-kutsadura murrizten. Hiritarren bizi-kalitatea hobetuko du ere.
- **Publizitate enpresak:** Aplikazioa erabiltzen duten kontsumitzaileak beraiei pertsonalizatutako publizitatea eskeintzeko aukera ematen dio.